

Autoebaluazioarako proba

Soldatak 5

Jarraibideak

- Autoebaluazio proba egiten hasteko sakatu “Hasi” botoia.
- Erantzun atalei.
- Autoebaluazio proba amaitzeko sakatu “Bukatu” botoia.
- Erantzun zuzenen kopurua “Score” gelaxka sakatuz agertuko da.
- Atal guztiek puntu bana balio dute.
- Sakatu “Correct” botoia erantzun zuzenak ikusteko.
- Proba hurrengo orrialdean hasten da.
- Proba egiteko denbora: 35 minutu.

Adierazburua

Ireki ezazu soldatak.gdt datu-fitxategia honako eredua aztertzeko:

$$Soldata_i = \beta_1 + \beta_2 esper_i + \beta_3 esper_i^2 + \beta_4 hezk_i + \beta_5 aintzinatasuna_i + \beta_6 arraza_i + \beta_7 emakumea_i + \beta_8 ezkondua_i + u_i \quad i = 1, \dots, N.$$

Eredu horretan emakume ezkondua izateagatik esperotako soldatan eragin negatiboa jasotzen delako susmoa aztertu nahi da.

Erregresio lineal orokorreko eredua

1. Analisia egiteko ereduak honako terminu hau barneratu behar du:
 - (a) $emakumea_i^2$
 - (b) $ezkondua_i^2$
 - (c) $emakumea_i + ezkondua_i$
 - (d) $emakumea_i \times ezkondua_i$

2. Estimatu behar den eredia hau da:

$$(a) \text{ soldata}_i = \beta_1 + \beta_2 \text{esper}_i + \beta_3 \text{esper}_i^2 + \beta_4 \text{hezk}_i + \beta_5 \text{aintzinasuna}_i + \beta_6 \text{arraza}_i + \beta_7 \text{emakumea}_i^2 + \beta_8 \text{ezkondua}_i + u_i$$

$$(b) \text{ soldata}_i = \beta_1 + \beta_2 \text{esper}_i + \beta_3 \text{esper}_i^2 + \beta_4 \text{hezk}_i + \beta_5 \text{aintzinasuna}_i + \beta_6 \text{arraza}_i + \beta_7 \text{emakumea}_i + \beta_8 \text{ezkondua}_i^2 + u_i \quad i = 1, \dots, N.$$

$$(c) \text{ soldata}_i = \beta_1 + \beta_2 \text{esper}_i + \beta_3 \text{esper}_i^2 + \beta_4 \text{hezk}_i + \beta_5 \text{aintzinasuna}_i + \beta_6 \text{arraza}_i + \beta_7 \text{emakumea}_i + \beta_8 \text{ezkondua}_i + \beta_9 (\text{emakumea}_i + \text{ezkondua}_i) + u_i \quad i = 1, \dots, N.$$

$$(d) \text{ soldata}_i = \beta_1 + \beta_2 \text{esper}_i + \beta_3 \text{esper}_i^2 + \beta_4 \text{hezk}_i + \beta_5 \text{aintzinasuna}_i + \beta_6 \text{arraza}_i + \beta_7 \text{emakumea}_i + \beta_8 \text{ezkondua}_i + \beta_9 (\text{emakumea}_i \times \text{ezkondua}_i) + u_i \quad i = 1, \dots, N.$$

3. Hezkuntza aldagaiari dagokion koefizientearen estimazioa hau da:

$$(a) 0,523130 \quad (b) 0,526584 \quad (c) 0,560615 \quad (d) 0,511415$$

4. Perturbazioaren bariantzaren estimazioa hau da:
- (a) 3,693086 (b) 2,828403 (c) 13,63888 (d) 7,99986
5. Banako baten aintzintasuna urte bat handitzen bada gainerako ezaugarriak konstante mantenduz, zenbateko igoera estimatzen da batezbesteko soldatan?
- (a) 0,124839
(b) 0,523130
(c) 0,0482665
(d) 10,84
6. Gainerako ezaugarriak konstante mantenduz, zenbatekoa da ezkondu gabeko emakume baten eta ezkondu gabeko gizon baten soldate-tan espero den diferentzia?
- (a) β_7 (b) β_8 (c) β_9 (d) $\beta_7 + \beta_9$
7. Aurreko diferentzia esanguratsua da? ($\alpha = \% 5$)
- (a) Bai (b) Ez

8. Gainerako ezaugarriak konstante mantenduz, zenbatekoa da emakume ezkondu baten eta gizon ezkondu baten soldatetan espero den diferentzia?
- (a) β_7 (b) β_8 (c) β_9 (d) $\beta_7 + \beta_9$
9. Aurreko diferentzia esanguratsua da? ($\alpha = \% 5$)
- (a) Bai (b) Ez
10. Gainerako ezaugarriak konstante mantenduz, zenbatekoa da emakume ezkondu baten eta ezkondu gabeko emakume baten soldatetan espero den diferentzia?
- (a) β_7 (b) β_8 (c) β_9 (d) $\beta_8 + \beta_9$
11. Aurreko diferentzia esanguratsua da? ($\alpha = \% 5$)
- (a) Bai (b) Ez
12. Gainerako ezaugarriak konstante mantenduz, zenbatekoa da gizon ezkondu baten eta ezkondu gabeko gizon baten soldatetan espero den diferentzia?
- (a) β_7 (b) β_8 (c) β_9 (d) $\beta_8 + \beta_9$

13. Aurreko diferentzia esanguratsua da? ($\alpha = 5\%$)
- (a) Bai (b) Ez
14. Genero aldagaiaren esanguratasuna kontrastatzeko hipotesi hutsa hau da:
- (a) $\beta_7 = \beta_9$
(b) $\beta_7 = \beta_9 = 0$
(c) $\beta_7 = 0$
(d) $\beta_9 = 0$
15. Generoa aldagaiaren esanguratasuna kontrastatzeko estatistikoaren balioa hau da:
- (a) 20,96724 (b) 20,9628 (c) 31,2584 (d) 34,7594
16. Genero aldagaia esanguratsua da? ($\alpha = 5\%$)
- (a) Bai (b) Ez

17. Egoera zibila aldagaiaren esanguratasuna kontrastatzeko hipotesi hutsa hau da:

(a) $\beta_8 = \beta_9$

(b) $\beta_8 = \beta_9 = 0$

(c) $\beta_8 = 0$

(d) $\beta_9 = 0$

18. Egoera zibila aldagaiaren esanguratasuna kontrastatzeko estatistikoaren balioa hau da:

(a) 10,5231

(b) 19,3474

(c) 11,237

(d) 20,9628

19. Egoera zibila aldagaia esanguratsua da? ($\alpha = \% 5$)

(a) Bai

(b) Ez

20. Arraza aldagaia esanguratsua da? ($\alpha = \% 5$)

(a) Bai

(b) Ez

- 21.** Gainerako ezaugarriak konstante mantenduz, esperientzia urte bat handitzean soldatan estimatzen den igoera hau da:
- (a) $0,198694 - 10$ urteko esperientzia badu.
 - (b) $0,198694 + 0,0400650$ 10 urteko esperientzia badu.
 - (c) $0,198694 - 0,080130$ 10 urteko esperientzia badu.
 - (d) $0,198694 - 0,0400650$ 10 urteko esperientzia badu.
- 22.** Zein balioen artean estimatzen da esperientzia eta hezkuntza gabeko, 19 urteko eta ezkondu gabea den gizon zuri baten soldata?
- (a) 3,50 - 5,25
 - (b) 1,50 - 12,76
 - (c) 7,13 - 2,866
 - (d) 2,866 - 1,50
- 23.** Posiblea litzateke 19 urteko esperientzia duen ezkondu gabeko gizon zuri batek 15,14 dolar irabaztea enpresa batek kontratatzean?
- (a) Bai
 - (b) Ez